

## TOKI GARAPENERAKO BATZORDEA

**3.- EUSKADIN DAUDEN ERAIKINETAN ENERGIA BIRGAITZEKO JARDUKETAK EGITEKO LAGUNTZEN PROGRAMAN (PREE programa) ONDORENGO EGITASMOA AURKEZTEKO PROPOSAMENA: BITERI KULTUR ETXEAREN IPAR BLOKEAREN INGURATZAILE TERMIKOAREN BIRGAITZE ENERGETIKOA ETA BARRUKO AIREA BERRITZEKO INSTALAZIOA. (Txos. Energia 2021\_31)**

### 1.- Aurrekariak

Batetik, AGM arquitectos SLPko XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX arkitektuek idatzi dute Hernaniko Udalak eskatutako exekuzio proiektua: "Biteri kultur etxearen ipar blokearen inguratzailer termikoaren birgaitze energetikoa eta barruko airea berritzeko instalazioa".

Proiektua 2020ko irailean amaitu zen, baina ezinezko izan zen egikaritzea bideratzea. 2021an, (6736) 1 02.622.01.333.00 2021 BITERI KULTUR ETXEA - OBRAK IPAR BLOKEA diru partida onartu delarik, posible izango da. Aitzitik, proiektua formalki onartzeke dago egokitzapen txiki batzuk behar dituelako, araudiaren eguneratzeen ondorioz. Horiek, edonola, soilik izango dira bermatzeko aurrez definitutako eskuhartzea bere horretan egokia dela egungo araudiaren ikuspuntutik.

Bestetik, 2020ko abuztuaren 6ko 212. zenbakiko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzearekin batera, abuztuaren 4ko 737/2020 Dekretuak (aurrerantzean "737/2020 ED") dauden eraikinetan energia birgaitzeko jarduketak egiteko laguntzen programa arautzen du eta programa honetako laguntzak autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoei zuzenean ematea arautzen du, eta dauden eraikinetan energia birgaitzeko jarduketarako eraikin horiek azken hartzaileei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen ditu (aurrerantzean, "PREE programa").

737/2020 EDak zioen azalpenean adierazten duenez, Europako araudian ezarritako ingurumen- eta energia-helburuak lortzeko laguntzea du helburutzat, dauden eraikinen zaharberritze-jarduketak eginez, eraikin horien erabilera eta eraikinen titularren izaera juridikoa edozein izanda ere, azken energia-kontsumoa eta karbono dioxidoko emisioen murrizketa bultzatuko dutenak, energia-aurrezpenaren bidez, energia-efizientziaren hobekuntzaren bidez eta energia berriztagarrien aprobetxamenduaren bidez, 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauaren 7. artikulua ezartzen duen azken energia-kontsumoa murrizteko helburuak lortzeko lagunduz.

### 2.- Analisia

Aipatu proiektua bat dator PREE programaren xedearekin eta, zehatzago, diruz laguntzen diren jarduketaren arteko lehendabizikoarekin: "1. mota: inguratzailer termikoaren energia-efizientzia hobetzea". Oinarrizko dirulaguntza %35ekoa da, itzuli beharrik gabekoa. Diruz lagungarri diren gastuak oinarrietan zehazten dira. Kontuan izan behar da proiektuaren baitan egitekoak diren zenbait atal kanpo gelditu daitezkeela, baina proiektuaren muin nagusia, inguratzaileraren birgaitzea, diruz lagungarria izango da.

Epeei dagokienez, dirulaguntza eskaria egiteko epea 2021eko uztailaren 31an amaitzen da. Eskaria jasotzen duenetik 6 hilabetera, gehinez ere, eman behar du EEE/EVEK ebazpena. Eta eskuhartzea egiteko eta fakturatzeko epea, aldiz, 18 hilabetekoa da, ebazpena jasotzen denetik. Bideragarritzat jotzen da dirulaguntzaren epeen baitan egitea lanak.

Aztertu da udaleko Hirigintzako ingeneriak egindako txostena.

**Proposamena:**

**Tokiko Gobernu Batzarrak hau erabakitzea:**

---

Laguntza-programa honetan parte hartzea, bertan jasotako konpromisoak betetzeko ardura hartuz.

Eskuhartzeak dirulaguntzarekin duen bateragarritasuna kontuan hartuta, laguntza programan parte hartzea.

---